

Hezkuntza-lege berririk ez, eskerrik asko



MIKEL BASABE
KORTABARRIA
IRAKASLEA

Oraingo, argi dugu Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-lege berria, indarrean jarriko balitz, euskararentzat kaltegarria izango dela. Argi dagoen bezala EAeko legea ez dela autonomia erkidegotik Euskal Herri osora esportatuko eta hezkuntza-eredu propiorik ez dela izango Espainiak eta Frantziak gure hezkuntza-sistemaz (publikoaz zein pribatuaz) erabakitzen duten bitartean.

Argi dugu hezkuntza bidegurutzean dagoela, aldaketa premian, emaitza hobeak lortu beharrean. Askotariko hobekuntzak behar badira ere, nik euskarari begiratu diot. Honela:

1. Hezkuntza lege honi ez! Berritu 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoarena. Zergatik? Euskal eskola publikoak ez duelako 3L eredu ezarriko dion legerik behar -murgiltze-eredu unibertsalaren bidean baitago-, baizik eta garai berrietara egokitzeko aukera emango dion lege berritua. Legea egokituz, ikastetxeen autonomia benetan sustatu, boteretzeko; sare publikoa bihurtu diru publikoz egingako espermentazioen erdigune; ziurtatu euskara-eskolak emateko bitarteko berriak (pedagogikoak, metodologikoak, langileak...).

2. Deskontzertatu! Eskerrak publikoari, ezkerak publikoak. Aurreko puntuan aipaturiko lege berriak **ikastetxeen**

autonomia bermatu beharko luke. Zer-tarako? Bada, besteak beste, ikastolei publikora pasatzeko aukera emateko (Katalunian, dekretu bidez dago araututa): irakasleak egonkortuta, jarraituko lukete irakaskuntzaren nondik norakoak berek gelaratzen. Alegia: gaurko (ustezko) eredu propioa mantenduko litzateke. Horrela, euskarazko irakaskuntza oraindino gehiago orokortuko litzateke, baina, garrantzitsuagoa, eskola kontzertatuari ez litzaiokoe babes ideologikorik emango... klasismotik/fedetik kanpora.

3. Eskolak, bakarrik ezin. Datu ofizialtan oinarritutako diagnosa eta aurrera begirako proposamena egin behar dira. Horietan, datu ofizialen irakurketa ofiziala ñabartzeaz eta, zenbaitetan, ukatzeaz gainera, planteamendu orohartzailea egin beharko da. Murgiltze-eredua mantendu, bai, eta metodologia berriak proposatu, ingurune soziolinguistikoaren arabera koak eta erabilera sustatzeko pentsatuak beti. Hori guztia nahikoa ez denez, eskolaz kanpoko aisialdirako planteamendu orokorra egin behar da, udalerriz udalerriz, hizkuntza eskolatik kanpora ere zabal dadin. Eta, batez ere, ikuspegia aldatu: ezin dugu euskalduntzea soilik hezkuntza-sistemaren bizkar utzi.

Bidegurutzean hartuko den erabakia ez dakigula gurutze-bidea izan. ●

Harritzeak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA
ETA IDAZLEA

Harritu da ama, berak deus ere galdetu gabe, tabernan sartu eta egunkari bat eskura eskaini diotenean: *"Aquí tienes, Blanca."* Harritu da, egunkaria eman dionak amaren izena zekielako, behin ere harekin hitz egin ez badu ere. Barran eskatutako bi kafeak hartu eta mahaian jarri gara. Orduan etorri da amak bolumen apalean egin didan komentarioa (gaztelaniaz): "Tabernan isilik dauden beste batzuek ere ederki jakingo dute ospitalean eman dudana aldiaren berri."

Harritzekoa da, izan ere, gutaz zenbat dakiten ingurukoek, askotan edota aldiaren behin ikusten gaituzten beste ho-

riek: gure izena, gure lanbidea edo langabezia, gure harremanak, gure gorputzaren eskasia... Harridura unibertsala da, nonbait ere: sentimendu aski bitxia sortzen du ezagutza horretaz ohartzeak.

Alabaina, ez gara harritzen gu haiek garenean, eta besteen gainean aritzen garenean: haien izenaz, haien lanbidez edo langabeziaz, haien harremanez, haien gorputzaren eskasiaz... Ez gara harritzen beste batzuk gurekin harritzen direlarik.

Eta, urte zaharraren eta berriaren arteko trantsizio honetan, ez dakit zerk sortzen duen harridura handiagoa nigan. Harritzeak. Ez harritzeak. ●